



## REVERSING LANGUAGE SHIFT HEGOALDEAN

Miquel Gros i Lladós □

*Abokatua eta soziolinguista*

Helbide elektronikoa: [miquelgros@hotmail.com](mailto:miquelgros@hotmail.com)

### SARRERA

Badirudi egungo mendea elkarrekiko mendekotasunarena izango dela. Inoiz baino gehiago, Lurra gero eta txikiago ari da bilakatzen, gizakiak lortutako aurrerakuntzen ondorioz. Elkarrengandik milaka kilometrora dauden bi pertsonak elkarrekin hitz eta lan egin dezakete gaur egun, denbora errealean. Aurrerakuntza handi horiek ingelesez hedatzen dira, nagusiki, eta, nazioarteko beste hizkuntza gutxi batzuetan, bigarren maila batean. Hizkuntza-aniztasunari krisi larria dakarkion joeraren erakusgarri da jokamolde hori.

Horrenbestez, hizkuntzek bizirauteko aukera bakarra idatzizko araudi bateratu bat sortzea izango da eta, horren ondorioz, dagokion lurralde historikoan normalizatzea, betiere lurralde hori barne hartzen duen/duten estatuaren/estatuaren babes irmoarekin. Zoritxarrez, berrehun baino gutxiago dira egoera horretan dauden hizkuntzak. Horrek izugarrizko deskalabrua ekarriko liguke; izan ere, oraindik munduan diren 6.000 hizkuntzetatik gehienek heriotza ekarriko luke (ia seguru, egungo mendea amaitu baino lehen).

Deskalabru hori jada iragarri zuten itzal handiko zenbait hizkuntzalarik, duela zenbait hamarkada. XX. mendearen bigarren erdian, Haugen,

Breton eta Fishmanen lanek1 aurreratu ziguten nondik zetozen iragane-ko inposaketak eta, batez ere, zer ondorio ari ziren sorrarazten hizkuntza gutxituetan. Irakaspen-mugimendu horren arabera, une honetan bertan abiarazitako jarduera sendo batek soilik geraraz eta itzularaz zitzakeen hizkuntzen galera-prozesu horiek. Gero eta gehiago, norabide horretako gizarte-mugimenduak sortzen joan ziren, indartsu, hizkuntza gutxituko hainbat herritan. Dakigunez, euskararen berreskurapen-mugimendua izan zen aitzindarietako bat, eta mugimendu guztietan arrakastatsuen izan zen, gainera, zalantzarik gabe, erabileraren ehunekoaren bilakaerari dagokionez behinik behin, jarraian ikusiko dugun bezala.

## EUSKARAREN ATZERAKADA HISTORIKOA

Azterlan honen xedea ez da euskararen galera-prozesuak zer etapa izan dituen aztertzea. Ezta galera horren zergatiak argitzea ere, hizkuntza-ordezkapen gehienetan berdinak izaten direnak, esan dezagun bidenabar. Nolanahi ere, gogoratu beharra dago zenbateko arriskuan zegoen euskara joan den mendearen bigarren erdian, prozesu hark izan zuen joera-aldaketa sakonaren ondorioz. Hamaika belaunalditan, Estatuaren hizkuntzaren inposaketaren eragina birtuala zen, erreal baina gehiago, gizarte-geruzarik esklusiboenei soilik eragiten baitzien, eta gizarte-geruza horiek ez baitzuten pisu handirik ehunekotan. Gaztelaniak euskara ordezkatze-ko (egiturazko ordezkapena), zenbait belaunaldi beharko ziren. Argi zegoen atzerakada hori mugimendu geldoa zela, eta betiere gaztelaniarekin mugakide zen geografia-eremutik abiatuta gertatzen zela.

Paradigma hori, ordea, goitik behera aldatu zen XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran: estatuek beren eskola-sistemak hobetu zituzten, soldaduska hedatu zuten, eskala handiko hedabideak garatu zituzten eta barneko lan-mugikortasuna bultzatu zuten. Bat-batean, hiru belaunaldi eskasetan, atzerakada historiko horizontaletik atzerakada moderno bertikalera igaro zen.

Egoera horrek Geolinguistikak proposatzen zituen mapa zaharrak hankaz gora jartzea ekarri zuen, besteak beste. Euskaradun herriak, atzerakada geldo baina etengabeen zegoenak, bere baitan eutsi zion euskararen transmisioari eta gizarte-erabilera erabatekoari. Amaitu zen hizkuntza-muga poliki-poliki, baserriz baserri eta auzoz auzo atzeratzen joatea. Besterik gabe, desagertu egin zen. XX. mendearekin, amaitu zen Euskal Herria, eta beharbada betirako; bai behintzat etimologikoki duen adieran.

Hizkuntzaren atzerakada-motak izandako bilakaera horrek arrisku larrian utzi zuen euskara. Horrez gain, Hegoaldeari dagokionez —artikulu honetan eremu horretara mugatuko gara—, gutxitze-prozesua azkartzea hogeita hamar urtetik gorako diktadura militarren pean gertatu zen, eta erregimen hori bereziki oldarkorra zen edozein hizkuntza-elementu bereizgarrirekiko. Hirurogeita hamarrekiko hamarkadan, erregi-

---

*Hizkuntzek bizirauteko aukera bakarra idatzizko araudi bateratu bat sortzea izango da eta, horren ondorioz, dagokion lurralde historikoan normalizatzea, betiere lurralde hori barne hartzen duen/duten estatuaren/estatuaren babes irmoarekin.*

**Laurogeiko hamarkadaren hasieran, Euskal Herriak eta Britainiako administrazio-eskualdeak ia biztanle-kopuru bera zuten, baina bretoi hiztunen kopuru absolutua handiagoa zen euskal hiztunena baino, eta ehunekotan hiru puntu goitik zeuden hizkuntzaren ezagutzan. Bada, hogeita hamar urte geroago, Britainiako eskualdean 600.000 biztanletik 200.000ra igaro dira, eta hiztunen ehunekoa 22tik 6,5era jaitsi da.**

men-aldaketarekin batera, euskara administrazio-, merkataritza-, zuzenbide- edo politika-inguruneetatik kanpo zegoen erabat, eta hedabideetan eta hezkuntzan ere hutsaren hurrengo presentzia zuen. Euskal Herriko udalerrri edo bailara guztietan, barruraino sartu zen gaztelania, eta Hegoaldean normaltasunez bizitzeko guztiz ezinbesteko bilakatu zen. Hiri-ingurunean, familiaren bidezko transmisioa bertan behera geratu zen, ia erabat. Eta soziolinguistikari oso jakina denez, egoera horren ondoren hizkuntza erabiltzeari uztea etortzen da, eta handik gutxira gainera, baita landa-eremuan ere. Lehenago esandakoa errepikatu arren, esan beharra dago euskara desagertzeko prestatua izan zela, eta iragan mendearen azken laurdenak izan behar zuela azken aurreko geltokia; hau da, hizkuntza edozein familia-eremutan hitz egiteari utziko zitzaionekoa.

Hizkuntzen galera-fenomenoen arloan ikasiak ez direnei aurreko hitzak gehiegizkoak direla irudituko zaie. Horregatik, prozesu hori adibide baten bidez azalduko dugu, eta oso urrutikoa ez den beste egoera batekin alderatuko dugu Euskal Herria. 1981. urteko erroldako datuen arabera, EAEn 430.000 euskaldun zeuden, 5 urtetik gorakoak. Euskaldun guztien kopurua kalkulatzeko badugu, nafarrak eta Iparraldekoak gehituta, 560.000 euskal hiztun inguru izango ziren garai hartan, zazpi probintziatiko guztizko 2.890.000 biztanleen %19,5. Ia aldi berean, 1983. urtean, RBO (*Radio France Bretagne Ouest*) hedabideak bretoierrari buruzko inkestak egin zuen. Britainiako administrazio-eskualdeko 2.700.000 biztanleen artean, 600.000 inguru ziren elebidunak, biztanleriaren %22 inguru.

Beraz, alderaketa oso antzekoa da. Laurogeiko hamarkadaren hasieran, Euskal Herriak eta Britainiako administrazio-eskualdeak ia biztanle-kopuru bera zuten, baina bretoi hiztunen kopuru absolutua handiagoa zen euskal hiztunena baino, eta ehunekotan hiru puntu goitik zeuden hizkuntzaren ezagutzan. Bada, hogeita hamar urte geroago, Britainiako eskualdean 600.000 biztanletik 200.000ra igaro dira, eta hiztunen ehunekoa 22tik 6,5era jaitsi da. Bretoieran eskolatzen direnen tasa %2 ingurukoa da, eta familiaren bidezko transmisioa, berriz, hutsaren hurrengo 3. Horixe zen, eta ez besterik, euskararentzat prestatzen joan zen etorkizuna. Eta demokraziaren hastapenetan euskarak zuen egoera berme ezin hobea zen bretoieraren moduko bilakaera izateko.

## **ESPAINIAKO DEMOLINGUISTIKAREN HISTORIARI BURUZKO ZENBAIT ZERTZELADA**

Biztanleria-errolden bidez, hizkuntza batek lurralde batean zenbateko hedapena duen jakin daiteke. XIX. mende erditik aurrera, jada ohartu ziren horretaz gizon-emakumeak. Horrenbestez, galdera hori erroldan sartzen lehenak izan ziren oinarri demokratiko sendoak zituzten herrialdeak —hala nola Erresuma Batua— eta beren mugen barruan hizkuntza-aniztasunaren ehuneko handia zutenak —hala nola Belgika, Suitza eta

Austria-Hungariako inperioa—. Hau da, eta ezin zen bestela izan, hizkuntza horiei legezko aitortza edo, gutxienez, kultura-mailako aitortza handiena eman zieten estatuak izan ziren lehenak, erroldetan bertako hizkuntzen ezagutza-mailaz herritarrei galdera egiten.

Harrizkoa da, ordea, Espainiak, hizkuntza-aniztasun hain handia izanik, inoiz ez txertatzea erroldan inolako galdera demolinguistikorik. 1857. urtean egin zen Espainiako biztanleriaren lehen errolda, eta Estatuan bata bestearen atzetik etorri ziren erregimenetako batean ere ez zitzairen inoiz hiritarrei erroldan galdetu zer hizkuntzatan mintzatzen ziren. Begi bistakoa da ahazte hori ez zela kasualitatea izan; izan ere,

hizkuntzari buruzko galdera egitean, erroldak ez soilik naziotasun bat, baizik eta hizkuntza-naziotasun bat hautatzera behartu zuten jende guztia, lehenengoz<sup>4</sup>.

Talde bati zer hizkuntza-kidetze zuten galdetze hutsa aski zen talde hori kanpora begira ikusgarri egiteko, eta berezko komunitate berezitua osatzearen kontzientzia hartzeko. Zalantzarik gabe, ondorio hori zuelako, ez zuen Espainiak ofizialki egiaztatu nahi izan zer hedapen geografiko eta demografiko zuten bere berezko hizkuntzek.

Ez da zaila imajinatzea euskarari buruzko zer datu emango zituen XIX. mende erdialdean egindako hizkuntza-erroldak, Hegoaldean. Ladislao Velascoren lanen arabera<sup>5</sup> (1867. urte ingurukoak), 780.000 pertsona inguru zeuden lau lurraldeetan, eta horien %50 baino gehixeago ziren euskaldunak; eta badirudi euskaldun gehienak elebakarrak izango zirela. Edonola ere, kaltea eginda dago, eta 125 urtean zehar bildu ahal izango lirakeen datu demolinguistikoak betirako galdu dira.

Bada beste datu bat, Espainiako demolinguistika oraindik gaztearen adierazgarriago dena. Europako berrogeita hamar estatu ingururen artean, badira zortzi beste guztiengandik bereizten direnak, hizkuntzari dagokionez bestelakoa den biztanleria %25etik gorakoa izateagatik. Estatuaren hizkuntza-aniztasunari dagokionez, zortzi estatu horiek gure kontinentean lehen mailan daudela esan dezakegu. Espainiak ez zuen soilik datu demolinguistikoak jasotzeko lana mende bateko atzerapenez hasi, gainerako zazpiekin alderatuta, eta hizkuntzaren lurralde batera eta galdera-sorta tekniko batera mugatuta. Horrez gain, gehiengoaren hizkuntza zein den galdetzen ez duen bakarra da, aipatutako zortzi estatuen artean. Zalantzarik gabe, gauzak egiteko modu historiko oso bat eratoritzen da datu soil horretatik, eta ondorioak izaten jarraitzen du oraindik, gaur egun ere.

Espainiak bere baitako hizkuntza-aniztasunarekiko historikoki izan duen jarrera izan da hura ukatzea eta hizkuntza bakarra inposatzea. Baina azkenik, sistema guztiz demokratikoa lortu dela dirudienean ere, demolinguistika ofizialak ziurtzat jotzen du gaztelania dela biztanle guztien hizkuntza komuna. Horregatik, ez du hizkuntza horretaz galdetzen: biztanleen ahozko nahiz idatzizko mailaz, familiaren bidezko transmisio-

---

*Espainiak bere baitako hizkuntza-aniztasunarekiko historikoki izan duen jarrera izan da hura ukatzea eta hizkuntza bakarra inposatzea. Baina azkenik, sistema guztiz demokratikoa lortu dela dirudienean ere, demolinguistika ofizialak ziurtzat jotzen du gaztelania dela biztanle guztien hizkuntza komuna.*

**Hizkuntza-politikarik onena gizartera egokien eta modurik hurbilenean egokitzen dena da. Horregatik, nire mapak ez dira inolako helburu, baizik eta gero hizkuntzen sustapen-neurri egokienak aplikatzeko bitarteko egokiak izatea da asmoa, hizkuntza gizartean zenbateraino sartuta dagoen.**

az eta hizkuntzarekiko atxikipenez edo berezko hizkuntzatat jotzeaz. Ez da soilik *primus inter pares* hizkuntzatat jotzen dela. Besterik gabe, beste hizkuntzen gaintik jartzen da, bai eta erroldan ere, eta ez da hari buruzko galderarik egiten. Soilik hala eskatzen duten lurraldeetan, hizkuntza-ezagutzari buruzko galderak txerta daitezke, baina betiere *hizkuntza erre-gionalei* buruz, argi eta garbi beheragoko mailan jarrita; izan ere, inolaz ere ezin da gaztelania maila berean jarri, ezta formalki soilik izanda ere. Beste behin ere, Espainiako demolinguistikaren eta lehen munduko gainerako estatu guztietan aplikatzen denaren arteko aldea erabatekoa da. Gainerako estatuetan, erroldan hizkuntzari buruzko galderak txertatzen direnean, gehiengoaren hizkuntza edo komunikazio-hizkuntza hizkuntza bat gehiagotzat jotzen da, nahiz eta biztanleriaren ehuneko laurogeita hamarren berezko hizkuntza izan, adibidez.

### **DEMOLINGUISTIKA ETA GEOLINGUISTIKA: OINARRIZKO EKARPEN BAT NORMALIZAZIORAKO**

Ez nuke gehiegi luzatu nahi erakutsiko ditudan bi mapak aurrez azaltzen. Ziurtzat jotzen dut irakurleen zati batek izango zuela inoiz esku artean nire liburuetakoren bat (Euskaltzaindiak argitaratuak). Lan horiek ezagutzen ez dituztenentzat, azaldu behar dut XX. mendeko soziolinguistikaren ezinbestekotzat jotzen dudana betebeharraren alde egiten dela, aurkezten ditudan ezagutza-mapen bidez; hau da, hizkuntza gutxituaren gizarte-ezagutza lurraldetik ahalik eta gertuen kokatzearen alde.

Normalizazio-prozesuetan gai hori funtsezkoa dela uste dut, baina ez naiz azalpenetan luzatuko. Hizkuntza-politikarik onena gizartera egokien eta modurik hurbilenean egokitzen dena da. Horregatik, nire mapak ez dira inolako helburu, baizik eta gero hizkuntzen sustapen-neurri egokienak aplikatzeko bitarteko egokiak izatea da asmoa, hizkuntza gizartean zenbateraino sartuta dagoen.

Horretarako, gaur egungo errealitate egokitu behar da ohiko hizkuntza-kartografia (errealitate hori oso aldakorra baita, gainera); eta kartografia horrek oinarrizko bi ezaugarri hauek izan behar ditu, nire ustez: lurraldera ahalik eta gehien hurbiltzea, eta hizkuntza gutxituaren presentziari buruz ahalik eta informaziorik zorrotzema ematea. Hauxe da, beraz, nire proposamena: tratatu nahi den ingurunea eskualde historiko edo geografiko ez handiegitan banatzea, lurraldearen azterketa xehatua egitea ahalbidetu dezan. Gero, ezagutza-maila erakutsi ahal izateko, sailkapen soziolinguistikoa bat proposatzen dut nire lanetan, hiztunen ehunekoan arabera taula kromatiko bat aplikatuz.


Ez dugu inoiz ahanzi behar ezagutzaz dihardugula hemen, eta ez erabileraz. Normalizazio-prozesu ororen xedea —*Reversing Language Shift* (RLS) tradizio fishmandar jatorrenaren arabera— hizkuntzaren gizarte-erabilera osoa lortzea da. Baina argi dago horretarako aurretiazko

baldintza dela hizkuntza ahoz erabiltzeko gaitasuna izatea. Normalizazioak gizartearen erabateko elebitasuna bilatzea arrazoizkoa dela uste dut (are gehiago, gizarte hori elebiduna balitz bezala aurkezten bada ofizialki). Horregatik, hizkuntza gutxituaren ahozko ezagutza %90etik gorakoa duten eskualdeak jotzen ditut goreneko kategoriatzat, sailkapen hartan. Kopuru hori ia-elebitasun baten parekoa litzateke, praktikan, eta zalantzarik gabe, eskualde horietan hizkuntza gutxitua gizarteko komunikazio-hizkuntza izatea guztiz lortzea ahalbidetu beharko luke, eta edozein eremutan erabiltzeak ezinbesteko lege-betekizuna izan beharko luke.

### 1981EKO ERROLDA: EUSKARA BIDEGURUTZEAN

Erregimen politikoa aldatzean eta demokrazia iristean, ezinbestekoa zen jakitea non eta nola zegoen euskara, Hegoalde osoan. Atzerapen handiz bazen ere, nahitaezkoa zen jakitea zer bitarteko zeuden hain beharrezkoa zen RLS prozesuari ekiteko. Hortaz, 1981ean, demokrazian egindako lehen biztanleria-errolarekin batera, eta Eusko Jaurlaritzaren eskariz, lehen aldiz ikertu zen euskararen ezagutza, EAeko hiru lurraldeetan. Nafarroan ez zen ikertu 1986ko biztanleria-errolara arte. Izan ere, bertako jarrera politikoa orain eta beti izan baita zekenagoa, baita besterik gabe nafarrek zer euskara-gaitasun duten jakiteko ere. Hortaz, hauxe da ateratzen den mapa:

1. mapa: Euskararen ezagutza Nafarroan (1986ko errolda)



*Kolore gehiegi egoteak adierazten du gaixorik dagoela hizkuntza. Duela soilik bi edo hiru belaunaldira arteko egoera hizkuntza-continuum bat bazen, azken aldian ordezkapena indartsu sartu da.*

---

*Hogei urte ez da denbora luzea, aldakortasun soziolinguistikoaren ikuspegitik. Gaiaz zerbait ikasi duen orok badaki hizkuntzaren gizarte-erabileran gertatzen diren zenbait ohitura-aldaketa finkatzeko, ezarpen-aldi luzeak, behartzeko hainbat neurri eta hedabide andana behar izaten direla, biztanleriaren lekualdaketa garrantzitsuekin batera.*

Kolore gehiegi egoteak adierazten du gaixorik dagoela hizkuntza. Duela soilik bi edo hiru belaunaldira arteko egoera hizkuntza-*continuum* bat bazen, azken aldian ordezkapena indartsu sartu da. Jada ez da atzerakada geografiko bat, ezta bizkortua ere; orain, batetik etorkin erdal hiztunak toki guztietan egotearen ondorioz, eta bestetik bertako biztanleriak neurri batean beren hizkuntza utzi zuelako, printzatu egin da lurralde euskalduna. Nafarroaren ipar-mendebaldean eta Gipuzkoaren barnealdean, gehiengoak euskalduna izaten jarraitzen du, baina Urolaren goi-ibilguak, Debabarrenak eta Ibaizabal arroak ziriarena egiten dute, eta isolatuta uzten dituzte gehiengoak euskalduna duten beste ingurune batzuk, hala nola Bizkaiko itsasertza eta Arratia bailara.

Esan beharrik ere ez dago une horretan gehiengoak euskalduna zuten eskualdeak landa-eremuak zirela eta, beraz, biztanleria txikiena zutenak. Euskararen ezagutza-maila handia edo dezentekoa zuten eskualdeetan, bigarren edo hirugarren belaunaldiak ziren euskaldunenak. Gainera, hiriburua eskualdeko batez bestekoaren azpitik ageri zen beti, eta gune erdaratzaile gisa jarduten zuen. Egoera hori biribiltzeko, ez zen inolako berreskurapen-zantzurik antzematen jada azken belaunaldietan erdaldundutako eskualdeetan, eta are gutxiago euskara berrezartzeko zantzurik, bertako euskara duela zenbait mende galdu zutenetan. Hauek lirateke Hegoaldeko guztizko kopuruak, urte hartan (Nafarroako datu fidagarriarik ez dagoen arren): 2.650.000 pertsonako biztanleriatik 490.000 pertsona izango lirateke euskaldunak, gutxi gorabehera biztanleria osoaren %18,5.

Begi bistakoa zen zer arrisku zetorkion gainera euskarari, eta ez dakienak edo ulertu nahi ez duenak, aski du ikustea zer bilakaera izan zuen garai hartan euskara baino erabiliagoa zen bretoierak, handik aurrera. Gertaera horren aurrean, EAEko agintari politikoei Euskararen Erabileraren Normalizazioaren Oinarrizko Legea onartu zuten 1982an. Hizkuntza desagertzeko bideari buelta emateko aukera bakarra zen. Horrenbestez, RLS bati aurre egiten zion munduko lehen lurraldeetako bilakatu zen, bere burua hizkuntza gutxitu baten erabilerei buruzko lege batez hornitzean, jada 1977an Quebecen (Kanada) 101 legeak markatutako ildoari jarraituz.

Nafarroari dagokionez, jada aipatu dugu 1986ra arte ez zela hasi datu demolinguistikoak biltzen. Horregatik, mapan ageri diren datuak bost urte geroagokoak dira, nahiz eta badirudien 1981eko koloreak oso antzekoak izango zirela. Nafarroaren atzerapen demolinguistikoak legearen eremura ere hedatzen da; izan ere, ez zen halako legerik onartu, harik eta 1986an bertan Euskararen Foru Lege polemikoa onartu zen arte. Lege horren bidez, hizkuntza gutxitu bat ofiziala soilik zati batean zuen lehen autonomia-erkidego bilakatu zen Nafarroa. Jarraian ikusiko dugun bezala, Nafarroako agintariek premia handieneko hizkuntzarekiko izan duten jarreraren ondorioz, oso bestelako berreskurapen-eritmoa dute Nafarroako eskualdeek.

## 2001EKO ERROLDA: XXI. MENDEA, BESTE AUKERA BAT EUSKARARENTZAT

Hogei urte ez da denbora luzea, aldakortasun soziolinguistikoaren ikuspegitik. Gaiaz zerbait ikasi duen orok badaki hizkuntzaren gizarte-erabileran gertatzen diren zenbait ohitura-aldaketa finkatzeko, ezarpen-aldi luzeak, behartzeko hainbat neurri eta hedabide andana behar izaten direla, biztanleriaren lekualdaketa garrantzitsuekin batera. Hala ere, esperientzia zientifikoak beste hau ere erakusten digu: aldaketa soziolinguistikoak zenbat eta gehiago finkatu, hainbat eta zailagoa dela egoera lehen-goratzeari. Horregatik, urte bakoitzak, hilabete bakoitzak, bere balioa du Hegoaldean gaztelaniak euskara ordezkatzearen aurka abiatutako erlojupeko lasterketan.

Horregatik, hogei urte igaro eta gero, interesgarria zen 2001eko datu demolingüistikoak aztertzea. Datu horiek erakutsi behar zuten ea bazen euskara berreskuratzeko eta elebitasun eraginkorrerantz aurreratzeko egiazko gizarte-borondaterik, edo, alderantziz, euskal gizartearen gehiengoarentzat euskara antzinako erlikia bat baino ez den, gizarte-komunikaziorako balio ez duen tresna bat.

Begiratuta, hauxe da ikusten den lehen gauza ziurra: euskarak kolpea gelditu duela Hegoaldean. Euskaldunen kopurua %50etik gorakoa zuten eskualdeek ehuneko horri eusten diote, eta haurren eskolatzea da horretarako giltzarria. Horrekin batera, familiaren bidezko hizkuntza-transmisioa jada ez da gehiago mugitzen gaztelaniaren aldera: biztanle euskaldunek, oro har, beren hizkuntza transmititu zieten beren oinordekoei, aldi horretan.

1981ean biztanle euskaldunen presentzia handia (%30 eta %50 artekoa) zuten eskualdeetan, 10 puntu baino gehiago hobetu da ehuneko hori hogei urte horietan. Hobekuntza nabarmen horretarako, bi faktore nagusi izan ziren: batetik, eskualde horietan hirugarren adinekoen tartea hain uniformeki euskalduna ez izatea; bestetik, eta beste behin, euskaraz eskolatutakoen ehunekoa horren handia izatea. Soilik Nerbioi Erdialdean, Txorie-rin eta Uribe Kostan izan zen hobekuntza hori epelagoa, zalantzarik gabe, Bilboko arroarekiko hurbiltasunaren eraginez. Hurbiltasun hori dela eta, eskualde horiek Bilbo Handiaren lotegi bilakatu dira, neurri batean.

Zoritxarrez, EAeko eta Nafarroako bilakaeren artean zer-nolako aldea dagoen egiaztatzen dugu eskualde-multzo horretan. Foru Erkidegoan hizkuntza-politikarik ez izatearen ondorioz, euskararen bilakaera askoz ere motelagoa da han. Horren erakusgarri dira gehiengo euskalduna ez izan arren euskararen ezagutza-ehunekoa handia duten eskualdeak —Erdialdeko Ibarrek eta Aezkoaldea—. Bi eskualde horietako haur gehienak berreuskalduak izan arren, beheranzko joera apala izan dute. Bailara horiek zahartzen ari direnez, ez dute haur asko, eta adin horretakoak ez dira aski, desagertzen ari den hirugarren adineko belaunaldia —orain-

---

*Bada beste alderdi bat ere, euskararen RLSan nabarmentzen dena, penintsulako lurraldeari dagokionez: berezko euskara guztiz galduta zuten eskualdeetara hedatzea hizkuntza. Hizkuntza gutxituaren berreskurapena zaila begitantzen bada, are zailagoa da jada ezagutzen ez duten inguruneetan berrezartzea. Arlo horretan, galesak soilik du euskararena bezain RLS ona.*



---

*Akatsa litzateke, nire  
ustez, gazte elebidunei  
beren kabuz portaera  
soziolinguistikoak  
aldatzeko gai izan  
daitezen exijitzea, are  
gehiago portaera horiek  
sakon errotuta daudenean  
gure gizartean. Gazteak  
oso elebidunak izanagatik  
ere, gizarteak erakusten  
eta eskaintzen dizkien  
jarraibideak betez  
jokatuko dute,  
hizkuntzari dagokionez.*

dik ere gehienak euskaldunak— konpentsatzeko, ez baitago inolako politikarik, bigarren adin-tarteko biztanleengan —demokrazia-aurreko etapen gaztelaniaz hazitakoak— hizkuntza-berreskuratzea bultzatzeko.

Euskaldun-kopurua aipagarria duten eskualdeetan ere (%10-30) hobetu egin da egoera hogeitau horietan; baina berriz ere lehen aipatutako aldeak ageri dira eskualde batzuetan eta besteetan. EAEko eskualdeetan, hamar puntu edo hortik gora hobetu da biztanleek euskaraz duten hizkuntza-gaitasuna. Nafarroakoetan, berriz, hobetu egin dira ehunekoak, baina gutxiago. Beste behin ere, datuek argi erakusten dute hizkuntza-politika irmo bat behar dela, ezinbestean, RLS arrakastatsua izateko.

Bada beste alderdi bat ere, euskararen RLSan nabarmentzen dena, penintsulako lurraldeari dagokionez: berezko euskara guztiz galduta zuten eskualdeetara hedatzea hizkuntza. Hizkuntza gutxituaren berreskurapena zaila begitantzen bada, are zailagoa da jada ezagutzen ez duten inguruneetan berrezartzea. Arlo horretan, galesak soilik du euskararena bezain RLS ona.

Deseuskaldundutako ingurunean (1981ean zuriz ageri diren eskualde guztietan, Bilbo-Urbin izan ezik), nagusiki eskolaren bidez birsartuko dute euskara, urtean puntu erdiko erritmoan hobetuz, gutxi gorabehera. Hortaz, hogeitau urte geroago, euskaldunen kopurua jada %10etik gorakoa da EAEko eskualde guztietan, Hego Añanan izan ezik. Zoritzarrez, atal horretan ere Nafarroaren portaera bestelakoa dela adierazi behar da. Izan ere, eskualde gutxi batzuek soilik lortu dute 2001ean ehuneko hori gainditzea: euskaraz mintzo diren eskualdeen mugakide direnek. Aitzitik, Nafarroako hamabostetik gora eskualdeetan biztanleen %5etik behera dira elebidunak. Beste behin ere, deitoratu egiten dugu Nafarroan aldi horretan izan diren gobernuek hizkuntza-berrezarpen horretarako lege-neurririk eta borondate politikorik ez izana.

Nafarroaren erdialdean eta Erriberan euskara berriz sartzeko ezinezkoa dela sinetsi nahi dutenek aski dute ikustea zer ibilbide izan duen hizkuntza horrek Oibarko ibarrean (Nafarroa) eta Ipar Añanan (Araba). Bi eskualde horietan, gaztelania antzina sartu zen, partzialki, eta biek garai berean galdu zuten euskara, azkenean, XVIII. mende inguruan. Beraz, RLSren hasieran, bi eskualdeetan zegoen euskaldun-kopurua hutsaren hurrengoa zen. Hogeitau urtez, oso bestelako hizkuntza-politika garatu dute batean eta bestean. 2001eko erroldaren arabera, Oibarko ibarreko biztanle elebidunen kopurua %5etik beherakoa da. Ipar Añanako biztanle-kopuru elebiduna, aldiz, %10etik gorakoa da, eta eskola-adinekoen artean, berriz, %50etik hurbilekoa (Oibarko ibarrean, ordea, eskola-adineko %15ak soilik aitortzen du gai dela euskaraz hitz egiteko). Elkarren ondoren dauden Ekialdeko Arabako Errioxa eta Viana alderatzen baditugu, emaitza bera jasoko dugu. Horra beste froga bat, egiaztatzeko gizarte-boluntarismoa ez dela aski, ezinbestekoa izan arren.

Ezin ditugu aipatu gabe utzi bi adibide adierazgarri: Aguraingo eta Aiarako koadrilak. Bi koadrila horietan, biztanle euskaldunak galduz

joan ziren azken bi mendeetan. Horrenbestez, eskualde horietan bazegoen —neurri handi batean— substratu soziolinguistiko hori, edo nire definizioaren arabera,

hizkuntza gutxitu batek hizkuntza hori berezkozat duen herriarekiko —eta, hedaduraz, herri hori hartzen duen lurraldearekiko— duen eragina, eta hein handi batean hizkuntza horrek berreskuratzeko eta normalizatzeko duen aukera baldintzatzen duena<sup>6</sup>.

Substratu horri esker, 1981ean ia biztanleria euskaldunik ez egotetik —%5etik behera— ehuneko hamazazpiko igoera izan du hogeitun urtean! Gehiegizko laudorioetan hasteko inolako asmorik gabe, inoiz ikusi izan den RLSrik onena dela esan daiteke... eta hobekuntza-marjina handia duena, gainera, eskola-adinekoen arteko berreuskalduntze-mailei erreparaturaz gero, geroago ikusiko dugun bezala.

### ESKOLAREN BIDEZKO BERREUSKALDUNTZEA: EUSKARAREN ETORKIZUNA

RLSri buruzko azterlan guztietako betiko leloa da haurren tarteak hizkuntzaren berreskurapenean betetzen duen funtzioari buruzko eztabaida. Bat nator hizkuntzaren biziraupena gazteen bizkar jartzea bideraezina dela dioen korrante kritikoarekin. Jakina da bizitzako etapa horretan anonimata eta taldearen babesa bilatzen dela, zerbait bilatzekotan. Norberaren nortasuna zehaztea geroxeago gertatzen da, heldutasunarekin batera eta bizitako esperientzien eskutik. Hortaz, akatsa litzateke, nire ustez, gazte elebidunei beren kabuz portaera soziolinguistikoak aldatzeko gai izan daitezen exijitzea, are gehiago portaera horiek sakon errotuta daudenean gure gizartean. Gazteak oso elebidunak izanagatik ere, gizarteak erakusten eta eskaintzen dizkien jarraibideak betez jokatu dute, hizkuntzari dagokionez. Eta, zoritxarrez, beren gizarteak bi hizkuntzetatik soilik batean bizi eta harremanak izateko gonbitea egin ohi die sarritan: hizkuntza normalizatuan.


Bistakoa da eskolaren bidezko berreuskalduntzeak hazten jarraitzearekin batera, beste hainbat neurri ere behar direla, hizkuntza gutxituak historikoki jasan duen diskriminazioa konpentsatzeko. Beraz, eta egia hori aiantzi gabe, berebizikoa baita RLS guztietan, 2001eko erroldaren mapan hamabost eta bost urte bitarteko biztanleriari behatuko diogu, *grosso modo* eskola-adineko biztanleria izendatzen duguna:

---

*Beti aldarrikatu izan dut demolinguistikak (eta bere balizko adierazpen kartografikoak) hizkuntza-normalizazioaren menpe behar duela egon: hizkuntza-erroldek hamaika aplikazio dituzte, baina haien azken helburua hizkuntza gutxitua garatzeko neurririk egokienak planifikatzeko tresna baliagarria izatea da.*

*Bai lehen aldarrikatutako  
Estatuko araudiari  
dagokionez, bai  
lurraldean onartzen diren  
hizkuntza-erakunde legeei  
dagokienez, lurraldea  
zenbait eremutan banatu  
beharko litzateke, nire  
ustez, horrela neurri  
normalizatzaileak  
optimizatzeko.*

2. mapa: Euskararen ezagutza Nafarroan (2001eko errolda)



Lehenago RLSren helburua gizartearen ia-elebitasuna dela esan badut, eta horren ondorio guztiak kontuan hartuta, mapa honek epe erdira egoera horretan egon litekeen lurralde bat erakusten digu. Etenik gabeko eremu geografikoa da: Nafarroaren ipar-mendebaldea, Gipuzkoa (Donostia-Beterrri eremua izan ezik) eta Bizkaiko ekialdea. Muga horien barruan, 2001eko eskola-adineko biztanleria —gaur egun, azken hogeita bost urteko txikiena—ia-elebiduna da jada. Errealitate hori aintzat hartzeak euskara haurren komunikazio-hizkuntza eta erabateko gizarte-erabilerakoa izateko behar diren lege-neurriak hartzea ekarri beharko luke.

Izan ere, eta laurogeiko hamarkadako asmo handiko normalizazio-planaren babesean, EAEko 39 eskualdeetatik 33tan eskola-adineko biztanleriaren gehiengo euskalduna da jada 2001ean, bai eta biztanleriarik handiena duen Bilbo-Urbin ere. Biztanleria handia izanik jada euskara erabat galduta zuten eskualdeetan ere, hala nola Ezkerraldean edo Gasteizen, eskola-adineko biztanleria euskalduna gehiengotik hurbil dago jada. Zalantzarik gabe, mugimendu hori finkatzea izango litzateke politika normalizatzaileetan sakontzeko oinarririk onena.

Edonola ere, Nafarroan oso bestelako bilakaera izatea deitoratu behar dugu, beste behin. Euskal eremuko 11 eskualdeetan eskola-adineko biztanleriaren gehiengo euskalduna da guztietan. Gainerako 33 eskualdeetan, ordea, bitan baino ez (Agoitzaldean eta Etxauriko ibarre-

an). Berriz ere argi geratzen da euskara koofiziala izango balitz Nafarroa osoan (eta horrek dakarren tratamendua jasoko balu), euskarak beste bilakaera bat izango zukeela bertako eskola-sisteman. EAE osoan izan duen berreskurapen handia da horren froga. Eta “bertan inoiz hitz egin ez delako” euskara Erriberan inoiz ezartzerik ez dela izango uste dutenei, nahikoa da Enkarterri Erdialdeko adibidea erakustea; izan ere,

jakina denez, erromantzea ageri da beti nagusi eremu horretan, hasiera-hasierako dokumentuetatik hasita’.

Hala ere, bertako biztanleriari euskara eta euskaraz ikasteko aukera eman zaionean eta aukera hori sustatu denean, hara zer emaitza eman duen, 2001eko erroldaren arabera: eskola-adinekoen %65 elebidunak dira.

## 2011KO ERROLDA, ETA LEGE ALDETIK HORRI DAGOKIONA

Biztanleriaren beste errolda bat egingo da, teorikoki, hilabete gutxi barru. Teorikoki diot, ezen INEtik datozen azken informazioen arabera, krisi ekonomikoko sakoneko eszenatoki honetan, bai baitirudi inkesta erraldoi bat egiteko asmoa izan dezaketela, lehenengoz, haren orde. Agerikoa denez, formatu-aldaketa horrek datu demolinguistikoen bilketan beherakada kualitatibo eta kuantitatibo nabarmena ekarriko luke. EAeko eta Nafarroako lurralde-agintariak datu-kate hori ez eteteko eta ez aldatzeko behar diren neurriak hartuko dituzten itxaropenari eutsi besterik ezin dugu egin.

Beti aldarrikatu izan dut demolinguistikak (eta bere balizko adierazpen kartografikoak) hizkuntza-normalizazioaren menpe behar duela egon: hizkuntza-erroldak hamaika aplikazio dituzte, baina haien azken helburua hizkuntza gutxitua garatzeko neurriak egokienak planifikatzeko tresna baliagarria izatea da. Modu berean, sen onak esaten digu ezin dela hizkuntza-politika bera aplikatu gehiengoa elebiduna den eremu batean eta berreskurapen-prozesua hasiberria den beste batean.

Baina honetan datza gure arazo handia: normalizazioa ez dela asmo handikoa, Estatuaren menpeko egiturei dagokienez. Hain zuzen ere, datorren urtean egin behar da Europako Kontseiluaren menpeko Adituen Batzordearen hurrengo txostena. Azken txostenean, 2008koan, ez zen oso toki onean uzten Espainiako estatuak euskararen normalizazio-prozesuan zuen jarrera. Izan ere, txostenak zituen gaikako zazpi ataletatik soilik irakaskuntzari zegokionean egiten ziren nagusiki iruzkin positiboak, batez ere lehen eta bigarren hezkuntzari zegokienez; hau da, neurri handi batean Autonomia Erkidegoko gobernuaren menpe dagoen arloan. Egiaztapen triste hori alde batera utzita, txostenean bertan ere Estatuko Hizkuntza Lege bat onartzearen alde egiten zen, Europako beste hainbat estatuk onartu duten bezala, bertan hitz egiten diren hizkuntza gutzien berriazko aitortza xehatua egiteko eta erabiltzaileek dituzten

---

*Gure zientzia gaztea da. Soziolinguistikak mende erdi baino ez du. Eta hizkuntzen berreskurapen- eta normalizazio-prozesuek, are gutxiago.*

hizkuntza-eskubideak eta Estatuak hizkuntza horiekiko dituen betebeharrak ezartzeko, Espainiak askatasun osoz onartu dituen nazioarteko konpromisoen arabera. Bai Espainiako panorama politikoan inoiz tokirik izan ez duen Hizkuntzen Lege horri dagokionez, bai aipatutako zazpi arlo horietan hartu beharreko neurri zehatzagoei dagokienez, nire aurreko lan batean proposatzen dudanari lotzen natzaio (ikus *El euskera en la CAV (2009): Una apuesta por la diversidad lingüística* lanaren hirugarren zatia).

Edonola ere, bai lehen aldarrikatutako Estatuak araudiari dagokionez, bai lurraldean onartzen diren hizkuntza-edukiko legeei dagokionez, lurraldea zenbait eremutan banatu beharko litzateke, nire ustez, horrela neurri normalizatzaileak optimizatzeko. Erakutsitako bigarren mapa oinarritzat hartuta, eta amaitzearen den hamarkada honetan euskara ustez izaten ari den bilakaera kontuan hartuta, gutxi gorabeherako emaitzak iragar daitezke.

Lehen eremua euskara jada nagusi den eskualdeen multzoak osatuko luke. 2001ean euskaldunen kopurua %50etik gorakoa zuten eskualde guztiek osatzen dute, eta ziur asko Ipar Durangaldea gehituko zaie. Eskualde horietan, premia da euskararen nagusitasunari dagokion estatu-legedi bat: errepara diezaiozun, esate baterako, eskualde horietako funtzionarioei, oro har ez baitute euskara jakiteko betebeharrak.

Bigarren taldea euskaldunen presentzia handia (%30-50) duten eskualdeek osatuko lukete. Eremu horietan euskara hiltzen ari zen, eta belaunaldi bakar batean da berreskuratzeko bidean (Donostiako ibarra, Bilbo Handiko iparraldeko eskualdeak, Arabako iparraldea, Burunda eta Nafarroako mendialdearen erdialdea). Eskualde horiek elebidunak dira ofizialki, baina horrek ez du esan nahi euskarak ez duenik erabilerarako zailtasun handia, hainbat esparrutan. Alderdi askotan, duela hogeita hamar urteko araudi beraren arabera jokatzeko da, oraindik ere, nahiz eta eskualde horietako haur gehienak euskaldunak izan. Horregatik, bultzada berria eman behar zaie eskualde horietako politika normalizatzaileei.

Hirugarren taldea berriz euskalduntasunera itzultzen ari diren eskualdeek osatzen dute; hau da, orain arte egindako lanaren ondorioz, jada biztanleen %10etik gora elebidunak dituzten eskualdeek. Begi bistakoa dirudi eskualde horietan lege-araudiak haurrei eta gazteei erreparatu behar diela, batez ere (beste alderdi batzuek arduratzeari utzi gabe), eta beren hizkuntza erabiltzeko tresnak eta esparruak eskaini behar dizkiela.

Zoritxarrez, laugarren eskualde-multzo batez ere hitz egin beharko litzateke. Ez dirudi Nafarroa Erdialdearen eta Erriberaren zatirik handienak datorren urtean %10a lortzeko moduan ere egongo direnik. Nafarroaren azken 25 urteetako hizkuntza-politikaren emaitza ezin zen bestelakoa izan, eskualde horiek eremu ez-euskaldunetan utzi direnez gero. Nafarroari dagokionez, lurralde osoan euskara berezko hizkuntzatzat joz eta probintzia osoan planifikazio bati ekinez soilik lor daiteke Hegoaldearen hegoaldeko muturra euskararen RLSren gurdira igotzea. Arabara begiratu besterik ez dago, horrela dela egiaztatzen.

Gure zientzia gaztea da. Soziolinguistikak mende erdi baino ez du. Eta hizkuntzen berreskurapen- eta normalizazio-prozesuek, are gutxiago. Ez dut uste gehiegizkoa denik esatea arlo horretan diharduten guztiek hura eraikitzen laguntzen ari direla, gehiago edo gutxiago. Guztiek *egiten dugula zientzia*, batzuetan akatsak eginez eta besteetan asmatuz. Eta argi dago aurretik joateak eta erreferentzia-puntu gehiegi ez izateak ez duela asko laguntzen. Baina denborak arrazoia ematen digu, emeki-emeki. Hortxe dago gure lurraldeetako gazteria, gero eta eleaniztunagoa dena. Egia da RLS aro mesianikoan sartzetik urrun dagoela (Joshua Fishmanen esapide egokia hizpide hartuta). Baina haiengatik bada ere, gure etorkizunagatik, aurrera egin beharko dugu. Badakigu halakorik ez egiteak nora eramango gintuzkeen.■

## AIPUAK

1. IKUS BRETON, Roland: *Geografía de las lenguas*, Bartzelona, Oikos-tau, 1979; FISHMAN, Joshua: *Sociolinguistics: a brief introduction*, Boston, Newbury House, 1970; HAUGEN, Einar: *The Ecology of language*, Stanford, Stanford University Press, 1972.
2. LLOYD HUMPHREYS, Humphrey: "The Geolinguistics of Bretons" (115. or.), in WILLIAMS, Collin (argit.): *Linguistic minorities, society and territory*, Clevedon, Multilingual Matters Ltd., 1991.
3. BROUDIG, Fanch: *Parler Breton au XXIe siècle*, Quimper, Emgleo-Breiz, 2009.
4. HOBBSAWM Eric J.: *Naciones y nacionalismo desde 1780* (108. or.), Bartzelona, Crítica, 1991.
5. VELASCO, Ladislao: *Los Éuskaros en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya* (479-490 or.) *apud* INTXAUSTI, Joseba: *Euskera, la lengua de los vascos* (134. or.), Donostia, Elkar, 1992.
6. GROS i LLADÓS, Miquel: *El euskera en la CAV (2009): Una apuesta por la diversidad lingüística* (83-84 or.), Bilbo, Jagon Saila 8, Euskaltzaindia, 2009.
7. KNÖRR, Henrike: "El euskera en tierras del romance: Rioja Alavesa, La Rioja, Burgos, Encartaciones" (51. or.) in JIMENO, Roldán eta LÓPEZ-MUGARTZA, Juan Carlos (argit.): *Vascuence y Romance: Ebro-Garona, un espacio de comunicación*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusia, 2004.